

Bageraren buletina

2020 otsaila

Kaixo bagerakide!

Otsaileko buletinaren bidez, hilabete honetan eskuartean ditugun eginkizun nagusien berri eman nahi dizugu.

Batzar Nagusia eta bagerakideen kuota

Urtarrileko buletinean aurreratu bezala, gogoan izan bagerakideen kuota otsailaren bigarren hamabostaldian pasako dugula.

Bestetik, Bageraren Batzar Nagusia **martxoaren 7an** izango da goizeko 10:00etatik 13:00etara Bagera Elkartean. Lehen deialdia 09:45etan eta bigarren deialdia 10:00etan izango da.

Gai ordena:

2017ko urtearen errepassoa.

2018ko jardunaren aurkezpena eta ekarpenen jasotzea.

Irutxuloko Hitzaren prozesua

Gaztezuloren eskualdatzea.

Norberak lekarkeena.

Zaindu maite duzun hori, atal berria Irutxuloko Hitzan

2017 urtean hasi ginen, hilabetean behin, gogoeta zutabe bat idazten Irutxuloko Hitzan hileko azken ostiraleko alean. Urte hauetan, hainbat gai eta arlo jorratu ditugu kolaboratzaile ezberdinekin. Aurten, hileko gogoetaz gain, atal berri bat jarriko dugu martxan "Bageralako nor, zaindu maite duzun hori" izenburupean. Helburua, Donostiako hizkuntza paisaian *ikusten* ditugun hizkuntzarekiko urraketak zein zoriontzeak argazki baten bidez zabaltzea izango da.



Horretarako, zuen parte hartzea eskertuko genizuke. Egin beharrekoa oso erraza da; Donostian zehar ikusten ditugun dendetako letreroetan, komertzioetan dauden paneletan, karteletan, kaleetako paskinetan, afixetan, seinaleetan... erreparatu eta euskararen mesedetan, edo kaltetan, deigarri egiten zaizuen horri argazkia atera eta bagera@bagera.eus helbidera bidaltzea.

Jarrai dezagun Donostiako euskaltzaleen mugimendua ehuntzen

Urtarrilaren 23an Donostiako Euskaltzaleon Topaketei (DET) jarraipena emanaz lehen bilera egin genuen Bagera Elkartean. Bertan, euskara Batzordeetako eta tokian toki euskararen alde lan egiten duten norbanako zein eragileak bildu ginen. Bilera horretan hobeto sartzeko, informazio trukaketarako eta elkarlanari begirako aukeren inguruan aritu ginen. Baita, hiriko eztabaidetan eta hiriko norabide orokorrean euskaltzaleen eragina handitzeko aukerak aztertu genituen.

Oraingoan, berriz, beste lansaio batetarako deialdia luzatu nahi dizuegu. Bertan, hizkuntza eskubideen aldarrikapena, euskaldunon ahalduntzea eta salaketa zein presio ekimenak bultzatzeko bideak jorratu nahi ditugu. Horretarako, **otsailaren 6an, arratsaldeko 19:00etan**, Arrano Beltza Euskal Biltokian (Alde Zaharra) biltzea proposatzen dizuegu.

Atzean Zuloa

Atzean Zuloa proiektua 2018an sortu genuen eta helburu nagusia, gazteen interesa piztea izan zen umorezkoa eta zirikatzailea izango ziren ikus-entzunezko pilulen bitartez. Bideo horietan, euskararekiko zenbait jarrera deserakitzea zen. Beti ere, ironia eta umorearen bidetik. Gehienok gudan ditugun kontraesanetan arakatuz.


Aurten, otsailetik aurrera, beste 10 bideo labor zabalduko ditugu astero sare sozialetan. Jarraitu gaitzazu youtube kalalaren bidez, twitterren edo facebooken. Zulotik begiratzen ausartuko zara?

Zineforuma: Aintza (Slava, 2016)

Goiz batean, Tsanko Petrovek, trenbideetako langileak, diruz betetako poltsa bat aurkituko du trenbidean. Poliziari abisatzea erabakiko du. Garraio Ministerioko agintariek, ustelkeria kasu batengatik egun horietan egunkarietako lehen orrialdean ageri direnek, Petrov saritzea erabakiko dute bere jokabideagatik, era horretan berri on bat emateko asmoz. Eskumuturreko erloju bat oparituko diote ekitaldian, eta daramana kenduko diote: aitzak oparitako Glory bat.

Bere erlojua berreskuratzen saiatu bitartean, galdu egin dutela jakingo du. Hemen hasten da bere erloju zaharra eta bere duintasuna lehengoratzeko ekingo dion borroka.

Otsailaren 11n, izango da hilabete honetako zineforuma, 18:30ean Koldo Mitxelena Kulturunean. Bertan, *Aintza (Slava)* filma ikusteko aukera izango dugu eta jarraian Andoni Imazekin (Berriako kazetaria) solasaldia egingo dugu.



Bikografiak: bi ibilbide elkarrizketan

BI IBI BIDE
ELKARRIZKETAN



Aitziber Garmendia
eta **Maialen Sorzabalbere**



Moderatzailea: **Ion Olano**

Urteko lehen solasaldia **otsailaren 20an** egingo dugu 19:00etatik 20:30era Tobacco Days liburu-dendan (Tabakalera). Gonbidatuak: Aitziber Garmendia (aktorea) eta Maialen Sorzabalbere (Barrexerkako kidea eta Puntu Koma telesailaren sortzailea). Gidari lanetan Ion Olano idazlea arituko da.

Elkarrizketa informal hauen bidez, hizkuntzak herritarren bizitza pertsonaletan eta eguneroko bizitzan duten isla jarri nahi dugu agerian.

Mintza-Txotx! Eguna otsailaren 29an Lesakan

Otsailaren 29an, Donostia, Hondarribi, Irun, Doneztebe, Elizondo, Iruñea eta Lizarrako mintzalagunok, *MINTZA-TXOTX! eguna, ospatuko dugu* Lesakako Lindurrenborde sagardotegian. Aurrez bisita gidatua izango da Lesakan zehar. Mintzalagunek, Solaslagunek, Mintzakideek eta etorri nahi duen orok, aukera paregabea izango dute, lagun giroan, euskara praktikatzeko eta sagardo eta jaki goxoez gozatzeko.

Izena emateko eguna otsailaren 13a izango da, eta ondorengo loturan klikatuta egin behar da: <http://bit.ly/TXOTX20> izena emateko.

Sagardotegia, bisita eta autobusaren prezioa 38 euro izango da.